

ANOETA ▶

## Txolarre irratia lau urte

Irratsaio berezia  
egin zuten atzo ▶ 4



# Inaxio Perurenak 275 kiloko harria altxatzen marka jarri du Urdiainen

**LEITZA** ▶ Hamahiru segundo besterik ez zituen behar izan; laster 21 urte beteko ditu harrijasotzaileak ▶ 7



Inaxio Perurena igandean Urdiainen, 275 kiloko harria jasotzeko unean, aita ondoan duela. JUANAN RUIZ/BERRIA



JUANAN RUIZ/BERRIA

## Lau t'erdiko finala galdu du Abel Barriolak

**LEITZA** ▶ Aimar Olaizola goizuetarrak 22-8 hartu zuen mendean leitzarra; gazi-gozozko aldarrearekin itzuli ziren leitzarrek ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

## Aitziber Arreseigor eta Idoia Arregiren nota onenak saritu dituzte

Unibertsitate ikasketak egin dituzte ▶ 2

ALEGIA ▶

## Eguberriko Pilota Txapelketa hasi da, Intxurrek antolatuta ▶ 5

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **NEREA LENTZERIA**k oparitutako oherako arropa zozketatuko dugu.



**LENTZERIA**

Errementari kalea z/g  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 16 30

GUTUN@K ▶



## Tolosako alkateari

Lehendabizi, eskerrik asko eman didazuen kirol sariarengatik. Bihotzez estimatzen dut eta egun hori beti gogoan izango dudun bezalaxe, Tolosako herriarekin zorretan sentituko dut aurrerantzean ere nire burua, beti erakutsi didan berotasun eta goxotasunarengatik, baina batez ere egin didan errekonozimenduarengatik.

Baina erabateko zorionik ez omen dago mundu honetan, eta nirea ere ezin zorion betea izan. Sentimendu gazi-gozoak harrapatu dizkit barrenak. Izan ere, Tolosako herriaren ordezkari bezala eman didazue errekonozimendu hau, baina jakin badakizunetz, Tolosako herriaren ordezkari guztiak ez daude Tolosako udalarekin; nire ordezkariak, 2.500 tolosarren ordezkariak, ukatua dute herritarrek emandako lekua udalarekin. Eta benetan gustatuko litzaidake, sari hau tolosar guztien ordezkari politikoen eskutik jasotzea, eta ez soilik tolosarren zati baten izenean. Eta egoera horrek mindu egiten nau.

Amaitzeko, idatzi honekin eskatu nahi dizut ahalegin guztiak egin ditzazun egoera honi konponbidea bilatzeko, bide horretan zure esku dagoen guztia egin dezazun. Neronek bezala, Tolosako herriak eskertuko dizu.

JOSE MARI BELDARRAIN ▶ TOLOSA

TOLOSA ▶

## Igandeko batel erakustaldia urtarrilaren 9an izango da

ERREDAKZIOA

Igandean Oria ibaian egitekoak ziren batel erakustaldia bertan behera utzi behar izan zuten eguraldi txarra zela medio. Euri asko egin zuen eta ibaia oso hazita zegoen igande goizean. Antolatzaleek jakinarazi dutenez, urtarrilaren 9an, egingo dute, 12:00etan.

**ILEAPAINDEGIRAKO**  
laguntzailea  
behar da.  
**943 65 23 83**

HEZKUNTZA ▶

MADDI SOROA

**D**uela aste batzuk, karre-ramaierako espediente onenaren sariak banatu zituen Kutxaren Gizarte Ekintzak Donostiako Kutxaren areto nagusian. 39 sari banatu ziren guztira, Gipuzkoako fakultate bakoitzeko ikasle onentzat, hain zuzen ere. Sari gisa, diploma eta 1.350 euro jaso zituzten lizentziaturikoek eta ingeniariak, diploma eta 1.050 euro, berriz, diplomaturikoek. Aurtengoan, Aitziber Arreseigor leaburuarra eta Idoia Arregi ibararra daude saridunen artean.

Sari banaketa, 1976az geroztik antolatzen du Kutxak eta unibertsitate ikasketak amaitu ondoren espediente onena duten ikasleak saritzea du helburua. Prozesu osoa Kutxa eta unibertsitate zentruen artean egiten da, zuzeneko beste parte-hartzerik gabe.

Fakultate bakoitzetik espediente onena duten hiru ikaslearen inguruko datuak bidaltzen dira. Kutxak, baldintza batzuk betetzen direnentz aztertzeaz gain, ea Kutxan konturen bat duten esaterako, aukeraketa egin eta ikasle bana izendatzen dute.

# Espediente onenaren saridunak

Aitziber Arreseigor eta Idoia Arregik espediente onenaren saria jaso dute Kutxaren eskutik



Aitziber Arreseigor eta Idoia Arregi, espediente onenaren saridunak. MADDI SOROA

AITZIBER ARRESEIGOR ▶

«Lana bilatzerakoan, lan esperientzia gehiago hartzen dute kontuan»

Aitziber Arreseigor leaburuarra da izatez, baina Ibarra bizi da. Enpresa zientzietan diplomatua da, ondoren Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatu delarik. Azken kurtsua, Frantziako Lille herrian burutu du. Gaur egun, Hernaniko enpresa batean dihardu lanean.

**Zer suposatuz dizu sari hau jasotzeak?**

Poza beti ematen du, baina nik uste lana bilatzerakoan adibidez, lan esperientzia gehiago hartzen dutela kontuan.

**Ordu asko sartzen dituzten horietakoa izango zara.**

Azterketa garaitan ikasten dut asko eta gero urtean zehar klaseetara joatearekin nahikoa.

**Ohorezko matrikulaz josita egongo zara, ezta?**

Ez, ez. Irakasle guztiak ez dituzte ohorezko matrikulak ematen. Izan ditut kasuak, 10eko nota atera eta ohorezko matrikularik ez jasotzea.

**Nola antolatzen zara?**

Azterketa garaiko hilabete eta

IDOIA ARREGI ▶

«Okerrena asteburuak ikasten pasatzea da; gaizki pasatzen nuen»

Idoia Arregi Ibarra da eta bertan bizi da. Industri Elektronikoa Ingenieritza Teknikoa egin zuen Arrasaten, ondoren Industri Antolakuntzaren Ingenieritzan lizentziatu da. Egundak gutxi barru Kutxan hasiko da lanean.

**Zer suposatuz dizu sari hau jasotzeak?**

Gehienbat kurrikuluma osatzeko puntu baliotsua dela uste dut, baita lana aurkitzerakoan aukera gehiago eskaini ditzakeela ere.

**Ordu asko sartzen dituzten horietakoa izango zara.**

Ikasi gabe ez da ezer gainditzen, hori argi dago, baina ni ez naiz etxetik irteten ez den horietakoa.

**Nola antolatzen zara?**

Azken bi urteak taldeko lanak egiten pasa ditut. Beraz, asteen zehar taldeko lanak egiten nituen eta asteburuetan ezer ere ez. Azterketa garaian, berriz, piloa ikasten nuen bi astetan.

**Q0eko beteta egongo zara.**



Ni ez naiz izan inoiz hamarretako ateratzen dituen pertsona! -kar, kar-

**Denbora librerik bai?**

Asteen zehar taldeko lanak egiten pasatzen nuen, baina asteburuak libre.

**Zin da trikimailua?**

Ongi antolatzean dago kokka. Ordu asko suposatzen du horirelako karrera bat ateratzeak, baina ongi organizatuz gero, gauzak ongi ateratzen dira.

**Zer izan da gogorrena?**

Azterketetako bi asteak oso txarrak izaten dira, baina okerrera, ordea, asteburuak ikasten pasatzea da. Oso gaizki pasatzen nuen. ◀

KROSA ▶

# Lasterka hasteko prest

Ostiral arratsaldean korrituko da VII. San Silvestre-Elkartasun Krosa; bi parte-hartzailearen iritziak eta inpresioak jaso ditu HITZAK

LEIRE MONTES

**G**abonetan asko jaten eta edaten da, eta kirola egitea oso komenigarria da». Hala, umoretsu, mintzatu dira Juanma Ordozgoiti eta Iker Pagola tolosarrak HITZAREKIN VII. San Silvestre-Elkartasun Krosean inguruan. Ostiralean korrituko da lasterketa, eta parte hartzeko ilusioz dira biak. «Urtea kirola egiten amaitzeko aukera aparta da», diote.

Orain arte Villabonako San Silvestre krosean korritu izan dute biek. «Ohitura polita iruditzen zait, eta urtero errepikatzen dut», azaldu du Pagolak. Iaz, baina, eta Samaniego-Orixek antolatzen duen proban helduek ere parte hartzeko aukera zutela ikusita, Tolosakoan izena ematera animatu zen: «Nire iritzi, horrelako lasterketaren falta zegoen herrian. Adin guztietako jendeak izena emateko aukera duenetik probak asko irabazi duela uste dut. Ikusle asko izaten da, eta giro aparta». Ordozgoitik lehen aldiz korrituko du Elkartasun Krosa. «Oso ekimen polita iruditzen zait. Herrian bertan parte hartzeko aukera nuela ikusi nuenean, probatzera animatu nintzen».

Beste hainbat kros eta probatan parte hartzeko ohitura badute biek, eta horregatik korritu beharreko kilometroek ez



Juanma Ordozgoiti —ezkerrean— eta Iker Pagola —eskuinean—, kroserako *entseatzen*. LEIRE MONTES

diete gehiegi arduratzen. Benjaminek 750 metroko ibilbidea osatu beharko dute, alebinek 1.500 metrokoa, infantilek bi kilometro, eta nagusiek 5 kilometro. «Ibilbide erraza da. Ziur nago edonork osatu ditzakela 5 kilometro horiek. Beraz, animatu eta parte hartu», dio, tinko, Ordozgoitik.

Kirola eta festa giroa uztartuko dira ostiraleko lasterketan. Bi korrikalariak «ondo pasa-

tzera» doazela argi dute: «Guretzat ez da lehia. Disfrutatu eta jai giroan murgildu nahi dugun».

Krosa Gabonetako betekadei aurre egiteko era ere badela diote biek, barre artean. Eta ohiturei eusteko aukera ere bai: «Kirola egitea beti da ona; eta Gabonetan, hainbeste jaten eta edaten den egunotan, are gehiago. Gainera, ohitura polita da San Silvestre. Batzuk, tradi-

zioari eutsiz, Uzturrera igotzen dira Urte Berri egunean. Guk, bezperan, oraindik ajerik gabe gaudenean, korrika egitea dugu gustuko. Tolosan lasterka egiteko joera handia dago, ea jende guztia animatzen den».

Prest dira bi korrikalariak. Lasterka hasteko eta jai giroan murgiltzeko prest. Gauza bera egin nahi duenak ostiralean du hitzordua, 16:00etan, Berdura plazan.

## HAINBAT DATU ▶

**Proba.** VII. San Silvestre-Elkartasun Krosa.

**Antolatzaileak.** Samaniego-Orixeko Kirol Eskola, Tolosako Udala, Tolosa hiri komertziala, Igarondo merkatari elkarte, Tolosa CF eta beste hainbat laguntzaileekin batera.

**Eguna.** Hilaren 31, ostirala.  
**Izen-ematea.** Egunean bertan, 15:00etatik aurrera.

### Lasterketak.

- ▶ 16:00. Benjamin neska.
- ▶ 16:15. Benjamin mutilak.
- ▶ 16:30. Alebin neska.
- ▶ 16:45. Alebin mutilak.
- ▶ 17:00etatik aurrera. Sari banaketa, mailaka.

### Sariak.

▶ Benjaminak, alebinak eta infantilak: lehenari garaikurra; Samaniego-Orixeko ikastetxeko lehenari garaikurra; lasterketa bakoitzeko lehendabiziko hamarrei dominak; eta parte-hartzaile guztiei kamisetak.

▶ Nagusiak: lehenengo neska eta mutilari Gabonetako saskiak; bakarkako partaideen artean hiru afariren zozketa (bi laguntzat Fronton jatek); taldekako partaideen artean hiru afariren zozketa (lau laguntzat Fronton jatek); eta parte-hartzaile guztiei kamisetak.

**Diru bilketa.** Irteeran eta helmugan egingo dute diru bilketa. Jasotakoa Indiaro bidaliko dute, San Bartolome Misio Taldearen eta Calcuta Ondoan Gobernu Kanpoko Erakundearen (GKE) bidez.

HIRIGINTZA ▶

## Gaur hasiko dira Leidor botatzen, Abesbatza Lehiaketarako bukatzeko

Lanak aurreratzea eskatu dute, ordezko aukeren desabantailengatik

ERREDAKZIOA

Gaur bertan hasiko dira Leidor zinema berritzeko lanak. Azken orduko erabaki honi esker datorren urteko Abesbatza Lehiaketa bertan egin ahal izango dute.

Berez, Leidor berritzeko lanek datorren urtean ziren hasitekoak eta 2006ko Abesbatza Lehiaketarako bukatzeoak, Tolosaren 750. urtemugako edizioa, bertan egiteko. Lanek iraun bitartean CIT-TEEK beste

egoitza bat bilatu behar zuten lehiaketa egiteko. Iparragirre zinema, Berazubi kiroldegia eta Beotibar pilotalekuaren aukerak ari ziren aztertzen, baina aukera guztien desabantailak ikusita, Leidorko lanak aurreratzea eskatu zien Udalarari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari. Bi erakunde hauek finantziatu behar dute erdibana berrikuntza lan garrantzitsu hau.

Eskaera hori ikusita, zalan-tza eta eztabaida askoren ondoren, azkenean Leidorren la-

nei lehenbailehen ekitea erabaki dute bi erakundeek eta gaur goizean bertan hasiko dira Leidor zinema botatzen berrikuntza lanekin laster hasteko.

### Akustika eta erosotasuna

Lan hauen helburua zinemaren akustika eta erosotasuna hobetzea da. Aspaldidanik kexu asko izan dira bi akats horien inguruetan. Atzerititik etorri diren abesbatza asko kexatu izan



Estoniako abesbatza aurtengo lehiaketan. I.ETXEBESTE

da aretoaren akustika txarregatik.

Berrikuntza sakona izango da barrualdean: eszenatokia, eserlekuak, aire egokitua,

akustika... Gaur egun 1.100 eserleku inguru baditu, bi areto egingo dira seguraski, handi bat eta 200 eserleku inguruko beste bat ondoan.

KOMUNIKABIDEAK ▶

# Lau urte uhinetan

Txolarre Irratiak laugarren urtemuga bete zuen herenegun; Tolosalde guztira hedatzea du erronka

IMANOL GARCIA

Txolarre Irratiak igandean lau urte bete zituen eta horregatik atzo bisitari ugari izan zituen. Jon Mirandak koordinatzen duen eskualdeko euskarazko irratiara Anoetako Gabonetako ludotekan dauden haurrak azaldu ziren, prestatu zizkieten hamaiketakoak jan eta irratiari Gabon abestiak kantatzera.

Atzoko *Tolosaldeko ahotsa* irratsaio berezian Igotz Alkorta eta Leire Zubeldia izan ziren. Bi hauek, Amaia Goikoetxearekin batera larunbateko *Hitzak egan* irratsaioa egiten dute. Joxe Angel Sarasola ere izan zen, herri kirolen berri ematen duenak.

## Hutsunea betetzea

«Bere txikitasunean handi bihurtu da Txolarre Irratia. Egunero kalitatezko saio txukun bat eskaintzen du. Eguneroko jardunak, lau urtez Tolosaldeko uhinetan mantentzeak erreferentziazuna eman dio irratiari», azaltzen du Jon Mirandak. «Orain lau urte Txolarre Irratia martxan jarri zuten herritarren helburua, Tolosaldean hutsune bat betetzea zen.

Lau urte pasatu ondoren, helburu hori bete dela esan liteke. Inork gutxi jarri dezake zalantzan Tolosaldeko euskarazko irrati behar duela. Eta irrati hori, Txolarre da».

Irratiak Tolosaldeari zerbitzu osatua eskaintzen dio. Mirandaren hitzetan: «Ez da uhinen bitartez entzuten den irrati bakarrik, ahozotasun eskola bat da, formazioa eskaintzen du eta soinu ekoizpen zentro bezela ere funtzionatzen du».

## Aurrera begirako erronkak

Txolarrek, datorren urteari begira, saiakera berezia egingo du udaletatik diru laguntza guztiak jasotzeko. «Era horretan, irrati zabaltzeko eta oraindik ere gehiago hedatzeko erronkari aurre egin ahal izango diogu. Hala ere, horretarako beharrezkoa izango da udal guztiak diru laguntza ematea», dio Jon Mirandak.

Hori baita Txolarrearen erronka nagusia: Tolosalde osoan hedatzea, Tolosaldeko txoko guztiak iristea. «Badakigu ez dugula lan erraza hartu, eskualdearen orografiak berez, ez baikaitu laguntzen, mendi-



Hamaiketakoak ederki gozatu zuten Txolarre bisitatzera joan ziren haurrak. I. GARCIA

## EGITARAUA ▶

**'Tolosaldeko ahotsa'.** Asteleheneetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara.  
**'Hitzak egan'.** Larunbatetan, 11:00etatik 14:00etara.  
**'Street noise'.** Asteartetan, 22:00etatik aurrera.  
**'Gau bero'.** Ostegunetan, 22:00etatik aurrera.

tsua eta zokoz betea baitugu. Baina, irrati proiektu hau baliagarria dela frogatu dugu lau urteotan eta egin beharrekoinbertsioak egitea ezinbestekoa dela, Tolosalde osoak kalitatezko euskarazko irrati etxean jaso dezan».



Gabon kantak abestu zituzten haurrek irrati mikrofonoetan. I. GARCIA



Joxe Angel Sarasola, bere alaba eta Jon Miranda solasean. I. GARCIA



## Aldarrikapenezko Eguberriak

**ANOETA** ▶ Anoetako gizarte eragileek aldarrikapenerako erabili zuten Eguberri bezpera. Goizean kantuan atera ziren baserriz baserri. Bazkaldu ondoren, manifestazioa egin zuten *PNV-EA herritarrek baztertuz, anoetarren hondamena* lelopean. Gero Olentzerori eskutitza irakurri zioten, besteak beste, herriaren hitza eta erabakia errespetatuaztea eskatuz». HITZA



# Villabona - Kultura

— ANTZERKIA —

GORRINGO taldea  
**'Kutsidazu bidea Ixabel'**  
azken emanaldia !

Abenduak 28 asteartea  
arratsaldeko 20:00etan  
OLAEDERRA KIROLDEGIAN



Udal Kultura Batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia  
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)



ALTZO ▶ KULTURA

## Arrantzale egun batez, Kulki taldearen eskutik

Pilotalekuan izango da Santillazpe guraso elkarteak antolatutako ekimena

O.ESKITXABEL

Arraunketa eta arrantzaleen kirol eta jolasak umeekin burutzeko eta gozatzeko aukera izango dute bihar pilotalekura bertaraten direnek. Santillazpe guraso elkarteak antolatutako ekimena da. Pilotalekuan izango da 15:30etik aurrera.

Arrantzaleen bizimodua joko bihurtuko dute eta barko umeei itsasoaren inguruko gauzekin, tresnekin... jolasteko aukera izango dute.

Jolasak Kulki taldeak proposatuko ditu eta bertatik

azaldu dutenez: «Parte-hartzaileek ondo pasatzeaz gain, arrantzaleen arlo desberdinak ezagutu, praktikatzeko eta baloratzeko da ekimenaren helburua».

Hiru urtetik hasita, gazteak, helduak... har dezakete parte. Bi dinamizatzailearen laguntza izango dute; horiek, pilotalekuan jarriko dituzten tresnen erabilera azalduko dute, besteak beste.

Arraunketa, arrantzaleen jolasak, demak, abestiak, hitz-jokoak... ekarriko dituzte gogora. Bi ordu inguruko luzapena izango du.

ALEGIA ▶

## 'Kill bill 2' filma eta diapositibak Gaztetxean

Gaztetxearen 17. urteurrenaren inguruan antolatutako egitarauaren baitan, bihar, *Kill bill 2* filma izango da ikusgai Gaztetxean. Uma Thurman da protagonista Quentin Tarantinok zuzendutako filma horretan eta mendekua du ardatz. 21:30ean hasiko da. Eta datorren urtean ere urteurreneko ekitaldi gehiago izango den arren, urteko azkenengo ekitaldia etzi izango da. Nepali buruzko diapositibak izango dira ikusgai. 21:00etan.

ALEGIA ▶

## Etxebizitza hizpide Hirigintza Batzordean

Datorren astelehenean, urtarriaren 3an, egingo den Hirigintza Batzordean etxebizitzaren eskaera eta eskaintza ezagutzeko ikerketa bat egitea proposatuko da. *Alegia-ko Orrien* jakitera ematen denez, hori onartzekotan, berehala gauzatzea ere erabakiko dela aurreratzen da. arau subsidiarioetan planteatu daitezkeen aldaketak aurkeztuko eta eztabaidatuko dira, beraz, Hirigintza Batzordearen bilera horretan. Udaletxean izango da; 19:30ean.

ALBIZTUR ▶

## Funtzionamendu berria KZgunean aurrerantzean

Urtarrilaren 1etik aurrera, Albizturko KZguneak ez du modu iraunkor batean tutorerik izango. Instalazioak, hala ere, erabiltzaileen esku jarraitzen dute asteazkenean, 16:00etatik 19:00etara eta ostiraletan 16:00etatik 20:00etara. Horretaz gain, mintegiak eta oinarrizko ikastaroak emango dira; KZgunean mintegi horien zereन्द्रa bat egongo da. Mintegirako taldea osatzean (4-5 pertsona), tutore bat gerturatu da eskolak ematera.

BERASTEGI ▶

## Gabonetako ludoteka zerbitzua

Berastegiko Guraso Elkartetik jakinarazten dute urtarriaren 5a bitarte ludoteka zerbitzu berezia izango dela herriko haurtoentzat. Gabonetako ludoteka zerbitzuan jolastu ahaliko dute elkarrekin txikiak arratsaldeetan, 15:30etik 17:30era. Bestalde, hiru saskien zozketan zenbaki saridunak suertatu direnak ondorengoak dira: 8743 (Lourdes Ramosi egokitu zaio), 5820 (Juan Jose Gorostartzuri egokitu zaio) eta 7381 (ez dago irabazlearen izenik).

ALEGIA ▶ PILOTA

# Atzo jokatu ziren Eguberriko Torneoko lehenengo partidak

Intxurre pilota eskolak antolatutako txapelketan Alegiako, Altzoko, Ikaztegiako eta Amezetako gaztetxoak ariko dira



Pilotalekuaren alde batean lau gaztetxo jokatzen; emaitzak apuntatzen eta animatzen gainontzekoak. o.e.

OLAIA ESKITXABEL

Atzo jokatu zituzten Intxurre pilota eskolak antolatutako Eguberriko Torneoko lehenengo partidak; Alegiako pilotalekuan gora eta behera korrika pilotari emanez aritu ziren pilotari gaztetxoak.

Lau urtetik hamaika urte bitarteko pilotariak hartzen dute parte txapelketa horretan.

16:30ean hasi ziren lehenengo partidak; pilotaleku osoan, partida bat baino gehiago jokatu zituzten aldi berean; txoko txikietan.

Gerrikoa jarri eta beroketa lanetan hasten ziren pilotari gaztetxoak. Emaitzak apuntatzeko arduradunak ere bazeuden partida bakoitzean. Arratsaldean zehar, partida ugari jokatu zituzten.

Aurtengo pilotari gazteoen txapelketan, hirurogeita bederatziko pilotari eman dute izena; eta Alegiako, Altzoko, Ikaztegiako eta Amezetako pilotari gaztetxoek hartuko dute parte. Neskatoak eta mutikoak. Atzo ezezik, bihar ere jokatu dituzte Eguberriko Torneoko partidak. 16:30etik aurrera izango dira.

Finala, datorren astean

Eguberriko Torneorearen finaleko partidak, datorren asteartean, urtarriaren 4ean, jokatu dira Alegiako pilotalekuan. Egun horretako pilota festan,



Gerrikoak jarri zituzten jokatzerira irteten ziren pilotari guztiek. o.e.

afizionatuen partida berezi bat ere jokatu dela azaldu dute antolatzaileek.

Parte-hartzaile guztien arte-

an egingo den askariarekin eta sari eta opari banaketarekin emango zaio amaiera aurtengo Eguberriko Torneoari.

**EGUBERRIETAN ALDE ZAHARREAN IRABAZTEN ATERAKO ZARA**

**3.000€**

Zatuz kanpaina honetako dendetara eta 3.000 euroko erosketa-txeke baten zozketan parte hartzeko aukera izango duzu. Horretaz gain, deskontu-saritan beste 3.000 euro banatu behar ditugunez, 30 eurorainoko deskontua irabaz dezakezu.

GUTUN@K ▶



izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Uzta plataformari

Uzta plataformak HITZA egunkariari igorritako artikulua irakurri ondoren, Ibarako EAJ-EA koalizioak honakoa adierazi nahi du.

Arrazoi guztia duzue esaten duzuenean udal bat kudeatzeko ikuspuntuak desberdinak direla kudeatzailearen arabera, baina gogorazazi nahi dizuegu legealdi honetan EAJ-EA koalizioakoei dagokigula Udala kudeatzea, Ibarako herriak 2003ko maiatzaren 14eko hauteskundeean erabaki zuen moduan.

Zuek diozue Consuelo Romeo Aya alkateak esan duela Ibaran 600 etxebizitza berri

behar direla, baina ez pentsa hori funtsgabeko informazioa dela, Ibarako Hiri Antolamenduko Arauen berrikuntza aztertzen ari den lan-taldeak idatzitako diagnostik eta gizarte eta hirigintza azterlanetik ondorioztatzen den kopurua da (zehazki esateko 686 etxebizitza falta dira).

Aurreko Hiri Antolamenduko Arauak indarrean egon diren epean, Ibaran 331 etxebizitza eraiki ziren, horietatik 115 babes ofizialekoak, gizarte-laguntzakoak eta alokairukoak zirelarik. Aipatu lur-sail horien erosketa, eta Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako akordioaren kudeaketa eta sinadura 1995-1999 legealdian egin zela, EA-EAJ-PSE koalizioa Udal Gobernuan zegoenean.

Gizarte-laguntzako etxebizitza hauen portzentajea %35 da eta adierazi nahi dugu portzentaje hori ez bakarrik Tolosaldeko altuena, baizik eta Gipuzkoa osoko altuena da.

Ez zaitezte arduratu, etxebizitza horiek ez dute 40.000.000 pezeta balio, guk nahi duguna da Ibarako eta inguruko herri-tar guztien etxebizitza arazoari konponbidea ematea, berdin zaigu gazteak edo zaharrak izan edo zein gizarte mailakoak diren.

Hau guztia epe laburrean jendaurrean ikusgai egongo diren Hiri Antolamenduko Arau berrietan ikusiko da.

Aurreko legealdiko zuen kudeaketaren balantzea egin duzue eta ez dugu zalantzan jarri du-

zuen borondate ona eta lana, egun Udalean dagoen EAJ-EA koalizioak jartzen ari den bezala. Guk ere gure kudeaketaren balantzea aurkeztuko dugu legealdia amaitzen denean, baina guk «nahi», «eskatu» eta «galde egiten» duguna da bakan uztea, gure lana (akatskin eta asmatzeekin) aurrera eramateko, guk aurreko legealdian egin genuen bezalaxe. Gero herriak erabakiko du.

Herriarentzako lan egin nahi baduzue, hor duzue EAJ-EA koalizioak mahai gainean utzitako eskaintza.

Ezin duguna da, zakurra eta katuak bezala, hamabostero egunkarira ohartxoak igortzen ibili. Ibarak ez duelako hau merezi.

IBARRAKO EAJ-EA ▶ IBARRA

## IBARRALDEA ▶

### Gabonetako ludoteka zerbitzu berezia

Urtero bezala Uli Mankomunitateak (Belauntza, Gaztelu, Leaburu-Txarama eta Orexa) Gabonetako ludotekak antolatatu ditu. Bertan hiru eta hamabi urte bitarteko haurrek elkarrekin jolasteko aukera izango dute joku eta eskulan desberdinak egiten. Abenduaren 31 bitarte izango da zerbitzua ordutegi hauekin: Leaburu Belauntzako eta Leaburuko haurrek elkartuko dira 10:00etatik 13:00etara, Gaztelun 10:00etatik 13:00etara eta Orexan 15:00etatik 18:00etara. Bestalde, bihar irteera berezia egingo dute Donostiako PIN-era, hau da, Gabonetako parkera. Informazio gehiagorako 943 68 22 28 zenbakira deitu daitezke.

## IBARRA ▶

### Gaztetxoei zuzendutako egitarau berezia

Ibarako Udal Kultura eta Gazteria Sailak haur eta gaztetxoei zuzendutako egitarau berezia antolatatu du. Horrela, osteguna bitarte, Ibarako Benito Izagirre kultur etxean bideo emanaldi eta antzerki saioez gozatzeko aukera izango dute etxeko txikienek. Gaur, *Iargiaren sekretua* bideo emanaldia izango da ikusgai, eta bihar, Kixka taldeak *Bolaluma* ikuskizuna eskainiko du. Bi saioak 11:00etan izango dira.

## IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

# 2004a ez da urte ona izan Ibararentzat

Ezin du Ibarak urte hau nola joan den ikusita balorazio ona egin; bi jokalaria berriekin taldea indartzea espero dute



2004-2005 denboraldiko Ibarra areto futbol taldeko jokariak. I.T.

### IÑIGO TERRADILLOS

2004. urtea nahiko txarra izan da Ibarra areto futbol taldearentzat; nahiko ondo eman zioten hasiera urte berriari jokalariei eta taldearen mailari dagokionez eta arazorik gabe baita ere alderdi ekonomikoa erekin.

Lehenengo golpea Azkarate kapitainaren lesioarekin iritsi zen, partidetatik at utzi baitzuen. Hala ere, Ibarako taldeak gogor jokatzeari ekin zion.

Golpe gogorra ondoren etorri zen, taldearen bi babeslek

atzeratu egin zuten hitz egindakoa bete gabe. Diru kopuru garrantzitsua galtzea esan nahi zuen honek eta denboraldia defizit handiarekin amaitzea.

Zilarrezko ligan talde askori gertatu bezala Belabieta kiroldegari arautegi berria aplikatuz betoa jarri zitzaion leku faltagatik eta arazo handia sortu zuen honek. Bilera ugari izan ziren eta azken unerarte mailan mantentzeko itxaropena bazegoen ere, ez zen posible izan eta Lehenengo maila A ligan jarraitzea erabaki zen.

Hala ere, Lauburu kirol elkarteak dioenaren arabera, aipatu beharra dago Kirolgi fundazioak eta Ibarako Udalak taldearekin oso ondo jokatu dutela eta euren laguntza eskaini eta eman dutela taldeak maila mantentzeko, azkenean gauzatu ezin izan bada ere.

Taldearen etorkizuna begibistakoa zenean eta talde berria eratzeko lanetan hasi behar zenean beste arazo batzuk sortuko ziren.

Brasilдарrek beste talde batzuetara alde egin zuten. Baina, hauetaz gain, Bautis atezainak Ibarra utzi eta Malagara joan zen, Montxik eskaintza polita izan zuen zilarrezko ligan jarraitzeko Sintal de Estella taldean eta Merino Donostiako UPVra joan zen.

Gazteekin talde berria osatzea pentsatu zen orduan; gainera, Hautsiren etorrera lortu zen.

Aurrendenboraldia nahiko ona izan zen, baina behin ligan sarturik gauzak bestelakoak izan dira, izan ere, jaitsiera postuetan aurkitzen da Ibarra. Taldea indartzeko jokalaria berrietan ari dira pentsatzen. Victor da horietako bat eta bestea urtarilaren Brako ekartzea espero da. Bi tadekide berri hauek Ibarak behar duen bultzada-txoa izatea espero da orain.

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

**Villabona-Aitzondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 693930

### GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

### KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Iturrioz, I. Euskal Herria 3

(Ibarra). 943 67 09 15

Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza).

112

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_publici@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.

villabona-aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoeta-Deia.** 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitzalde.** 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

## iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Soinu ekipoa.** Soinu ekipoa

osoa salgai. Argibideetarako

deitu: 943 674806/943 117738

telefono zenbakietara.

**Extebizitza.** Alegiako Larraitx

auzoan, etxea salgai.

680 57 09 52.

### LANA

**Sukaldaria.** Tabernarako

sukaldaria behar da asteburutan

lan egiteko. 943 691933.

## LEITZA ▶ GIZARTEA

Horrelako *kozinik* ikusi beharrik ez legoke inon ere. J.L.H.

## Uso-ehizeko postuak 31-erako garbitu behar dira

Ehiztari bakoitzak izendatuta du berea; egin ezean, neurriak hartuko omen dituzte

J. ASTIBIA

Uso-ehizeko postuak garbitzeko epea ostiral honetan, hilak 31, bukatzen dela eman du ezagutzera Leitzako ehiztarien elkarteak.

Ehiztari bakoitza zein postu garbitu behar duen jakinaren gainean dago: «Urrirako egin behar izaten duten bera da, orain garbitu beharrekoa», adierazi zuten elkartetik. Ziotenez, «ez litzateke horretaz oharpenik egin behar, baina epea bukatzean dagoela, oraindik garbitu gabe dituztenei oroitarazteko egiten da».

Izan ere ehizeko postu hauek garbi egon behar izaten dute denboraldian berean ere, legediaren arabera. Egu-

nean egunekoak jasoz, postuak eta inguruak ere garbi, zaborrik gabe mantendu behar dira, horrela egin ezean isun dezentekoak jasotzeko arriskua dutelarik eta bestela, beraientzat eta ehiztari ez direnentzat ere, mendia garbi eduki eta mantentzeko «obligazioa» duelako edozeinek ere, eta zikintzen duenak, zer esanik ez.

Edozein moduz, ikuskatzailerak igaroko omen dira ehizaleku guztietatik eta garbitzekoak dauzkaten ehiztariak «urte beterako elkartetik botako dira, kuotak berdin ordainduko dituzten arren, txartelik ez dute izanen eta ezingo dira ehizean ibili urte osoan», argitu dute.



## Elkarretaratze isila plazan torturaren aurka

LEITZA ▶ *Tortura, ez han ez hemen* lelopean elkarretaratze isila burutu zuten lehengo ostegun iluntzean, Leitzako plazan, Aralar taldeak Euskal Herrian zehar torturaren aurka egin deialdiaren baitan. Herriko Aralarreko eta EAko ordezkariak gain eskualdetik etorritakoekin batera, hamabost bat lagun bildu ziren, pankartaren atzean, egurraldi txarrari aurre eginez. J. ASTIBIA

## ▶ KIROLA

# Harria eta pilota izan dira asteburu honetan errege, gazi-gozoan

Inaxio Perurenak 275 kiloko harria jaso du bizkarrera, Abel Barriola lau t'erdiko txapelik gabe gelditu den bitartean



Inaxio Perurenak 13 segundo besterik ez zituen behar izan 275 kiloko harritzarra bizkarrera altxatzeko, bere 20 urte bakararekin. J.A.

JAIONE ASTIBIA

Normalean protagonista elurra izanzen zen asteburu honetan, lehen orrikoa kirolak hartu zuen kasu honetan, ez ordea ondorioak eragin gabe, zaletu mordoskak bere kirolari gogokoan ikusteko joaneran zailtasunekin egin baitzuen topo.

Oztopoak oztopo, kirolariak ordea, beren plazetarako bidea bilatu zuten eta eginbeharrak eginda, gazi-gozoko emaitzeekin itzuli ziren etxerantz. Horrela, gozo itzuli zena, Inaxio Perurena harrijasotzailea izan zen:

bere 20 urterekin —hurrengo hilaren 9an ditu 21—, 275 kiloko harria jasotzea lortu baitzuen Urdiainen. Pilotalekuko isiltasunaren erdian, 13 segundo besterik ez zituen behar izan harria berdintzeko, gehitxo berdindu ere. Izan ere, itxuraz, lurrari kentzen kosta zitzaion gehien, hankak luzeak izan. Baina behin gerrian itzuli zuenena, lepondora hurbiltzeko kolpe indartsuak eman zizkion gazteak eta azkenekoan, berdintzerakoan ia atzerantz bidali zuen handiskoa eman zion eta. Jasoaldiko une-

rik kezkarrienak izan ziren ziur aski, berretzat eta ondoan, laguntzaile zuen aitarrentzat ere. Balantzari eutsi eta inolako zalantzarik sortu ez zuen berdintzetaren ondoren, lortutako jasoaldiak pozez gainezka jarri zuen Perurena ez ezik, pilotalekua lepo bete zuen jendetza ere.

Ogetan ere gustura gelditu zenik bazen, Aimar Olaizolak 22 eta 8 irabazi baitzion Abel Barriolari, pilotako lau t'erdiko finalean. Baina Abelzaleak gazi-gozoko aldarrearekin itzuli ziren herrira, Barriola bera bezala. Hasieran leitzararren aldeko markagailua ikus bazitekeen ere (1-5 arte oso joko ona eta asmatuz ari zela erakutsi zuen urrutitik jaurtitako dejadak eta zabalerako sake pare batekin), alde handiko tanteoarekin izan zuen amaiera: 1ekotik hasi eta ia errenkadan 22raino joan baitzen goizuetarra, jokoan hautsi-urratuz sartuz, azeria zer-eginik utzi gabe eta tanto batzutan, agian, erabizuten asmatu gabe ere bai.

Baina hala ere, zoriontzekoa bada finalera aillatu bakarra egitea ere, maila horretan jokatzeo aukerarik ez baitu edozeinek izaten eta hau beti hor izaten da urrutiti gabe.

Horrelatsuko zerbaiz gertatu zitzaion Olazabal eta Beteluri ere, Zarautzen 15 tanto egitea lortu baitzuten DVko etorkizunekoetako finalean, Urdaniz eta Diaz de Ultzurrunen aurrean. Baina, orohar, egindako txapelketarekin gustura ageri zen Mikel aresoarra.

## iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88



**Villabona.** 70 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, bi logelarekin. Erabat berritua. 31.600.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.  
**Alkiza.** Txaleta lursailarekin. Kapritxoz. Informazio pertsonala. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Ibarra.** 85 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai; egongela, sukaldea, hiru logela eta bainugela. Kanpoaldera. Trastelekuarekin. Bizitzera sartzeko. 35.500.000 pezeta (negoziaerriak). Inmo Etxesagasti. 943 696856.

**Irura.** Etxebizitza eraiki berria. Egongela, sukaldea, bi logela eta bainugela. Terraza eta garajearekin. Etxesagasti. 943 696856.

**Tolosa.** Euskal Herria Plaza. Azkeneko pisua, aukera. Eraikina zaharberritzen. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.  
**Zizurkil.** 85 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai. Egongela, sukaldea, hiru logela eta bainugela. Kanpoaldera. 33.400.000 pezeta (negoziaerriak). Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.



## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Alzo.** Kulkil taldearen arraunketa eta arrantzaleen jolasak 15:30ean.

**Irura.** Ludoteka eta liburutegia irekiko da, 11:00etatik 13:00etara.

**Irura.** Asvinenearen *Bi eta zazpi edo ez zazpi eta bi* txoxngilo emanaldia Ikastolan 17:00etan.

**Tolosa.** Marraskilo zikloturista taldearen bilera 20:00etan lokalean: lizentziak, egutegia, irteerak...

**Tolosa.** Gabonetako Haur Parkea Beotibarren 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 20:00etara. 17:00etan sukaldaritza tailerra.

**Tolosa.** I. Gazte Astea: 10:00etan futbola 3x3 Pakon eta 17:00etan *funkihop* tailerra Kultur Etxean.

**Tolosa.** Merkatu Txikia India eta Sahararen alde. Kultur Etxean 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

**Villabona.** *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzelanaren azken saioa Gorringo taldearen eskutik. 20:00etan Olaederra kiroldegian.

### KIROLAK

**Tolosa.** Eguberrietako XIII. Shanti Torneoa Berazubi kiroldegian. 9:30 Txalupa-Anoeta (F-A), 10:15 Matxurrinak-Koskis (F-A), 11:00 The tigre-Shanti (A), 11:45 Uzturpe-Rayos (A), 12:30 Isastegi-Argysan (A), 13:15 Anoeta-Tigre txikiak (A), 14:00 Ibxaso Honda-Kobrak (B), 15:00 Sendi Ekintza-Itzuli (B), 15:45 Pumak-Lurrikarak (B), 16:30 Zumadi-Anoeta B (B), 17:15 Tigre txikiak-Laier (B), 18:00 Ugara-Aker urdin (B), 18:45 Txinparta-Anoeta A (B).

### ZINEMA

**Alegia.** *Kill Bill* filmaren 2. zatia Gaztetxean 21:30ean.  
**Asteasu.** *Buscando a Nemo* haurrentzako filma Kultur Etxean 16:30ean.  
**Ibarra.** *Ilargiaren sekretua* bideoa. Kultur Etxean 11:00etan.  
**Tolosa.** *Supertramps* 17:00etan eta *Melinda y Melinda* 19:30ean eta 22:30ean. Leidor zineman.

# Jantzi zuriarekin

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶** Igandean kaleraino jaitsi zen elurra; Bidaniako mendatea itxita egon zen; atzo Leitzako kaleetan elurra gelditzen zen oraindik



Bidegoianen atzo oraindik elur asko ikus zitekeen. OLAIJA ESKITXABEL

### ERREDAKZIOA

**P**ostaleko Gabonak bezalakoak izan dira aurten-goak. Elurrarekin. Zuri-zuri. Eguberri egunean goiko tontorrek zurituta agertu ziren eta igandean, herenegun, kaleraino jaitsi zen elurra. Elurretara urrutira joateko planak bertan behera utzi —baita arraunketarako planak ere— eta hemen inguruko belazetan ibili zen jende ugari elurretan jolasean. Errepideetan ere oztopo batzuk sortu zituen eguraldiak. Bidaniako mendatea itxita egon zen gure eskualdean, adibidez.

Atzo berriz, hobera egin zuen eguraldiak. Lehen aipatutako mendatea zabaldu zuten eta elurra altura batetik gora bakarrik ikus zitekeen, gure eskualdean Leitzako kaleetan, Bidania inguruan, Hernio, Uzturre, Txindoki eta horrelako tontorretan...

Neguko lehen elurra izan da. Baina ez da azkena izango. Tenporek negu nahasia iragarri baitute,



Uzturre inguruan oraindik elur dezente zegoen atzo. J.SAIZAR



Leitzako plazan koilatuta zegoen atzo eguerdian. J.ASTEBIA

### ZORION AGURRAK ▶



**ZORIONAK**  
Isabel Garcia Garrido.  
Zure senarraren partez muxu handi bat.



**ZORIONAK**  
Irati Izagirre Arsuaga.  
Gaur 7 urte. Ondo pasa ebekoen partetik.

# HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:  
Araba etorbidea, 5 behega - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!